



**Saskibaloia partiduz beteriko asteburua.** - Hitzordu garrantzitsua izan zen asteburuan Lasarte-Oriako Udal Kiroldegian; kadete mutilen lauko txapelketa jokatu zen larunbat eta igandean. Lau taldek hartu zuten parte asteburuko norgehiagokan: Euskadi, Galizia eta Asturias selekzioek eta Easo SBT taldeak. Galizia eta Easo SBT taldeek eman zioten hasiera txapelketari, larunbat goizean. Easo SBTk 53-44 irabazi zion Galiziarri. Ondoren, Euskadi eta Asturias neurtu ziren, eta 91-57 irabazi zuen Euskadik. Hirugarren partidua, Easo SBT eta Asturiasen artekoa izan zen eta azken honek irabazi zuen 80-72. Larunbateko azken partidua, Galizia eta Euskadiren artekoa izan zen, azken honek 64 eta 47 irabazita. Igandean beste bi partidu izan ziren; Asturias 88-45 Galizia, eta Euskadi 101-82 Easo SBT. Urtarrilean ospatu asmo duten Espainiako Txapelketari begira antolaturiko beroketa saioa izan zen asteburuan herrian egindakoa. Lasarte-Oriako txapelketaz gain, Tolosan ere saskibaloia neurtzeko izan zituzten asteburuan; infantil mailako mutilen arteko norgehiagokak jokatu zituzten bertan.

## 2 JAIALDIA Larunbatean II. Kalera Fest-ek hartuko du herria

Kirolak, haur-jolasak, zumba, dardo lehiaketa, pintxo potea, musika... hamaika ekintza izango dira larunbatean Lasarte-Oria erdigune eta Sasoeta auzoan. Esna Hadi elkarteak herriko hainbat talde eta elkarterekin batera egitarau ederra osatu du haur, gazte eta helduei zuzendua. Jaia izango da nagusi.



## 4-5 ELKARRIZKETA Amaia Andres GAFeko presidentearekin solasean

LOKEko lehendakari ohi eta atletismo entrenatzaile Amaia Andresek Gipuzkoako Atletismoko Federazioko makila hartu zuen duela hiru hilabete. Harekin bildu gara hilabete hauetako lanaren errebaso bat egin eta Gipuzkoako, zein Lasarte-Oriako atletismoaren egoeraz hitz egiteko.

**Eguberriak datoz eta abenduaren 16an, 2016ko azken TXINTXARRI arrunta argitaratuko dugu.**

Irekiera berria!

GIZONEZKO ILEAPAINDEGIA  
HITZORDUA HARTU! 943 841 972  
Ana  
PELUQUERIA DE CABALLEROS

20 urte baino gehiagoko esperientzia

- ✓ Higienea bermatua
- ✓ Bizarra moztea eta kentzea
- ✓ Haurrekin ere esperientzia
- ✓ Ilea moztea labanez, guraizez edo makinaz

Behoko kale 4 (Andre Joakina-Enea ondoan), Lasarte-Oria

Igeltseritza orokorra

Josue  
Igeltseritza S.L.

Fatxaden estaldurak  
Estalkien berriztatzeak  
Barruko berrikuntzak  
Gremioen koordinaketa

606 37 21 05  
Atallu pol. atallu, 28  
USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

JAIALDIA

# Hamaika ekintza II. Kalera Fest-en

## Arratsaldean, lau musika gune ezberdin izango dira

Iaz izandako arrakasta ikusirik Esna Hadi elkarteak aurten ere Kalera Fest jaialdia antolatuko du. Larunbatean goizeko 12:00etatik ordu txikiak arte, ekintza ugariz gozatu ahalko dute herritarrek. Egitaraua osatzeko hainbat elkarte eta eragileek lagundu dute.

**E**sna Hadi elkarteko kideek aipatu legez, iazko jaialdiaren irakurketa ederra egin eta berriro antolatzeko beharra ikusi zuten.

Hainbat bileraren ostean, herriko hainbat elkarte gastronomiko, taberna eta norbanakoren laguntzaz eramango da aurrera aurtengo edizioa, hala nola, Texas Futbol taldea, APG, Ostarte gazte taldea, Antxota elkarte, Lorena Garcia, Sasoeta Sasoian elkarte eta Koroibos Crossfit.

### Egitaraua

Goizeko 10:00etan areto-futbol partidekin hasi eta

Elektrotarangaren doinuekin amaituko da 01:00ak aldera.

Tartean, patinaje tailerra, haurrentzako jolasak eta mural margoketa, Zumba tailerra, Batukada eta Oaintxe indeu txarangak girotutako pintxo potea, Crossfit erakustaldia, dardo lehiaketa eta kontzertuak izango dira.

### Berrikuntzak

Antolatzaileek azaldu modura, hainbat berrikuntza dakartza aurtengo Kalera Fest jaialdiak.

Batetik "arratsaldeko kontzertuak ez dira tabernen kanpoaldean izango. Aurten



Jaialdiak iaz izandako arrakasta kontuan izanda, aurten ere larunbatean egin zuten Kalera Fest ekimena, herrian.

lau gune izango dira eta bakoitzean musika estilo tipo bat egongo da".

Era honetara, Jaizkibel plazan izango den Juan Mari Cerezo gunean kontzertu akustikoak izango dira, Landaberri BHIko laukian edo Forja gunean punk-rockaz gozatu ahalko da, Kale Nagusian

izango den Gorri gunean tributo taldeak izango dira eta azkenik Inma Oneka gunean, Sagar-dotegi kalean, Reggae musika izango da nagusi.

Eta antolatzaileek azpimarratu dutenez, honetarako Kale Nagusia itxiko da.

Bestetik, eguerdiko pintxo potean, elkarte gastro-

nomikoek egindako gutziak dastatu ahalko dira erdigune eta Sasoetako hogeitabat tabernetan.

Azkenik, aurtengo edizioan Sasoeta auzoa ere jai giroan murgilduko da. Bazkalostean, haur-jolasak izango dira eta hauek amaitzean, kontzertuak.

## EH Bilduk kezka azaldu du bidegorri sarearen inguruan

**E**H Bilduko ordezkariak Bidegorrien egoeraren inguruan agerraldia egin zuten. Donostiarekin lotura Aldundiak bukatu duela eta pozik agertu ziren baina oraindik eskualdeko herriekin loturak eta herri barneko hainbat bide egiteko daudela gogoratu zuten.

Pablo Barriok aipatu zuenez, "gaizki ulertutako garapen ekonomikoaren ondorioz, Lasarte-Oria, oinezko eta bizikleta erabiltzaileontzat, isolatuta geratu zen inguruko hiri eta herriguneei".

Lotura hau, azaldu zuten, 2013ko ekainean Aldundiak, onartutako Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarriko Sarean kokatu behar da. Hala ere, proiektua garatzeko, aurreko urtean aurreikusitako 6

milioietatik 2 milioietara pasa da eta "hau da albiste kezagarria".

Murrizketak ondorioak izango ditu EHBilduko kideen ustez, "Buruntza ldea eskualdeko artikulazioari dagokionez, Usurbilera oinez edo bizikletaz joan nahi izanez gero, Txikierrdiko derrigorrezko lotura guztiz arriskutsuarekin topatuko gara; Errekaldetik Galarreta eta Hernanirako lotura marra bat planoan baino ez da, oraindik pendiente dagoen Errekaldeko igogailuaren kokxa ahaztu gabe; Andoainerako kasuan, Donostialdeko Lurralde Zatikako Planak A-1 errepidetik aurreikusten duen bidegorriak aukera berriak irekiko zituen".

Bestalde, Bizikleta Bideen Planak bi ardatz ditu; Donostia-

Usurbil-Mutriku lotzen dituen, kostako bidetik barrena; eta bestetik, Donostia-Andoain-Beasain, Urumea bailaratik barrena. Bi ardatz hauen arteko lotura soilik Lasarte-Oriatik eta Plazaolako bidegorritik izango ziren "gelditzeko arriskuan ikusten ditugu".

Herri barnekoan "gauza asko daude egiteke". Oriatik Zumabururainoko irisgarritasuna hobetuz, batetik; eta Erribera kaleko etendurari irtenbidea emanez, bestetik.

Zabaletaberri, Irubide biribilgunea, Goiegi eta Zabaleta aldapako biribilgunearen lotura Tajamarretik.

Udal Taldeak bi eskaera egingo ditu 13ko Udal batzarrean. Batetik, herri




Pablo Barrio eta Gorka Lizarraga zinegotziak.

barneko mugikortasun jasangarriaren arloan dauden hutsuneak gainditze aldera, Udalari herriko bidegorrien sarea osatuko duen proiektua egitea. Eta bestetik, herri arteko mugikortasun jasangarriari dagokionez, Aldundiari

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarriko Sarean aurreikusten diren inguruko herriekiko bidegorrien loturen proiektuak egitea eta gauzatzea. "Bietan, prozesu parte-hartzaileak eginda eta jendearen iritzia entzun ondoren".

### Diruz laguntzen duten erakundeak

#### Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

#### Laguntzailea



#### Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

#### Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

#### txintxarri

#### Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika  
publizitatea@ttakun.eus

#### Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odrizola, Maidar Seguro, Gorka Alvarez, Jexu Artetxe, Edu Galardi

#### Informatikoa:

Xabier Amadoz

EUSKARA

# Oparitu euskara

## Euskarazko produktuen katalogoa kalean da

**Urteko garai honetan seme-alabei edo ingurukoei euskarazko liburuak, musika edota jokoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea izaten dela kontuan hartuz, Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria osatu dute Euskal Herriko 140 bat udal eta mankomunitatetako euskara batzordek, tartean Lasarte-Oriakoak.**



Katalogoa.eus helbidean dago katalogo birtuala urte osoan zehar martxan.

TXINTXARRI

Gurasoentzako eta 12 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka erreferentzia biltzen ditu Katalogoaren edizio berri honek.

Merkatuan dauden produktuen artean hautaketa egin da, berritasuna, egokitasuna eta kalitatea kontuan hartuta. Eta zazpi ataletan sailkatuta jaso dira: musika, DVD filmak, aldizkariak, komikiak, liburuak, jostailu eta jokoak eta gurasoentzako produktuak.

Gainera, produktu bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa ematen da, eta zenbait ataletan

adinaren arabera banaketa egiten da ere.

### Edizio digitala

Paperekoaz gain, [www.katalogoa.eus](http://www.katalogoa.eus) webgunea dago. Paperean jasotako produktuez gain, merkatuan aurki daitezkeen beste asko agertzen dira. Aukera dago, gainera, argitaletxearen denda birtualera iristeko produktuaren gainean klik egin eta, nahi izatera, begiz jotako produktuaren erosketatik egiteko.

Urte osoan bizirik eta eguneratua dagoen gunea da [www.katalogoa.eus](http://www.katalogoa.eus), argitaletxeek beraiek aukera baitute produktu berriak zuzenean sartzeko merkaturatu

ahala eta deskatalogatuak gelditu direnak kentzeko.

Hartara, webgunea urte osoan kontsulta daiteke, eta informazio berria eta interesgarria aurki daiteke bertan.

Produktuen bilaketa azkarra egiteko aukera ere baduzu, adinaren, prezioaren nahiz beste ezaugarri batzuen arabera merkatuan dauden produktuak aurkitzeko.

### 120.000 ale

Paperezko edizioari dagokionez, aurten 120.000 ale inguru banatuko dira Euskal Herri osoan. Lasarte-Oria haur eta nerabeak dauden etxeetara bidali da, esate baterako.

## Lasarte-Oria eta Donostia arteko bidegorria osatu da

Lasarte-Oriako alkate Jesus Zaballosek eta Marisol Garmendia Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatuak Lasarte-Oria eta Donostia arteko bidegorriaren lotura inauguratu zuten abenduaren 2an.

Bidegorri-tarte berria Urbil saltoki-gunearen inguruko bizikleten eta oinezkoen sarbideen barruan kokatzen da eta Donostiako Errekalde auzoko bizikleten eta oinezkoen pasealekua eta Lasarte-Oria udalerraren muga arteko bidea lotzen ditu.

Marisol Garmendia diputatuaren hitzetan, "Donostia eta Lasarte-Oria arteko bizikleta-bidea amaitu izana albiste ona da. Lasarte-Oriako herritarrek Urbilera



erosketak egitera edo Donostiara joan ahalko dira erraztasun osoz".

Diputatuak azpimarratu legez, "Departamentu honetatik mugikortasun iraunkorra sustatzen jarraitu nahi dugu, eta gipuzkoar eta bisitari guztiei gure lurraldean barrena bizikletan ibiltzeko erraztasunak eman nahi dizkiegu. Hori dela eta, 2017an lanekin aurrera jarrituko dugu

eta Txikiardi 2 tarte eraikiko da Lasarte-Oria, Usurbil eta Donostia batuz".

Jesus Zaballosek eskerrak eman zizkion Gipuzkoako Foru Aldundiari Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako sailak egindako lanarengatik eta aipatutako Txikiardi 2 proiektua azaldu zuen. "Urbil saltoki-gune eta Michelin enpresa artean joango da. Txikiardi etxeetako aldapa jaitsi eta bertatik Lasarte-Oria eta Usurbilerako adarrak egingo dira".

Era berean, EHBilduk egindako agerraldiari erantzuna eman zion, "prentsurrekoan egin baino lehen informatu beharko lirake. Lasarte-Oria ez da isolatua geratuko. Haiek eskatzen duten bidegorri tarteetako bat, Txikiardi 2, gaur azaldu modura, hurrengo urtean egingo baita".

EGUBERRIAK

### PSE-EEren jostailu bilketa

Abenduaren 1etik 15era arte Lasarte-Oriako PSE-EEK jostailu bilketa solidarioa egingo du herriko behartsuenentzat. Ekarpena egin nahi duten pertsonak Herriko Etxean utzi behar dituzte jostailuak 18:00etatik 20:00etarako ordutegian.

Parte hartzea sustatzeko, jostailu bat uzten duen pertsona bakoitzari txartel bat emango zaio bizikleta baten zozketarako. Abenduaren 22an Gabonetako Sari Nagusiaren azken bi zifrekin bat datorren txartela izango da saritua. Behin bilketa amaituta, PSE-EEK jasotako jostailu guztiak Lasarte-Oriako GKE bati emango dizkio, honek herriko pertsona behartsuen artean banatzeko.

SARE

### Sinadura bilketa

Abenduaren 3tik hasi eta hilabete osoan zehar Santi Arrozpide Sarasolaren egoera zabaldu eta Zigorren Batuketa gaia kaleratzeko zenbait ekimen burutuko ditu Lasarte-Oriako Sarek. Frantziako eta Espainiako kondena ezberdinak zigor bakar batean biltzea esan nahi du 'Zigor batuketak'. Europar komunitateko estatu ezberdinetako sententziak efektu berbera izan behar dutela zehaztu eta babestu zuen 2008an Europar Batasunak. Baina hau ez da gertatzen 48 preso kasuetan, tartean Santi Arrozpide herritarra.

"Santiren egoeran dauden presoek babesa adierazteko eta Batasuneko erabakiak errespetatu ditzan eskatzeko" Sare sinadura bilketa egingo du abenduan zehar. Horretaz gain, ostegunean, abenduak 15 20:00etan elkarretaratzea deitu dute Okendo plazan.

LEHIAKETA

### XXIV. jaiotza lehiaketa martxan

Danok Kide elkarteak ohiturari jarraikiz, jaiotza lehiaketa antolatu du. Adinaren arabera lau taldetan banatuko dira lanak. Talde bat 6 eta 9 urte bitartekoena izango da, bigarrena, 10 eta 13 urtekoena, 14 urtetik eta 17 urterakoena hirugarrena eta azkenik, 18 urtetik gorakoena.

Sariei dagokionez, lehenengo taldean lehenengoarentzat 60 euro eta bigarrenarentzat 40 euro emango dira, bigarrenean 70 euro eta 50 euro, hirugarren taldean 90 euro eta 60 euro eta azkenekoan, 120 euro eta 90 euro.

Hala ere, antolatzaileek adierazi dutenez, lehiaketara aurkeztu eta onartutako lan guztiak 10 euro jasoko dituzte.

Lanak aurkezteko baldintzak honakoak izango dira; 80x60zmk-ko neurria izan beharko dute eta oinarri sendoa. Ez da onartuko aurreko urteetan aurkeztuta lanik. Banaka zein taldeka hartu ahal izango da parte eta lana aurkezterakoan, gutun-azal itxi batean jasoko da izena, helbidea eta harremanetarako telefono bat. Kanpoko aldean adierazi beharko da zein adin taldean lehiatzen den lana. Jaiotzak abenduaren 19 eta 20an entregatu beharko dira Danok Kide elkartearen egoitzan, Blas de Lezo kaleko 11-13an, 17:00etatik 19:00etara. Jaiotzak ikusgai jarriko dira San Pedro elizan eta sarituak berriz, Muebles Azpeitian. Sari banaketa abenduaren 31n egingo da 12:00etan Danok Kiden.

GALDEKETA

### Terrazak jartzeko ordenantza berria

Udalak epea zabaldu du herritarrek tabernetako eta kafetegietako jarduera arautzeko abian jarri nahi duen ordenantza berriaren inguruan proposamenak egin ditzaten. Abenduaren 23ra bitartean aurkeztu ahal dira proposamenak.

Udalak aipatu duenez, ugaritu da gurean zoru publikoaren erabilera ostalaritzako jardueraren osagarri diren terrazak instalatzeko. Jarduera hau gauzatzeko lizentzia beharrezkoa den arren, jarduera hori arautu eta berdinduko duen araudi bat ez izateak nolabaiteko kontrol eza ekarri du eta ondorioz, kexa ugari. Ordenantza bat egin nahi da kontutan hartuz; pertsonak ingurune osasungarri bat izateko duten eskubidea zaintzea. Lehentasuna emango zaio erabilera komun orokorrari, oinezkoen arreta berezia eskainiz. Zuhaitzak, parterrak, hiri paisaiako landareak eta hiri altzariak zaintzea eta azkenik, zerbitzu publikoen funtzionamendua bermatzea, bereziki larrialdietakoak eta lurrazpiko azpiegiturakoak.

Horrela izanda, herritarrei deia luzatzen zaie proposamenak egiteko. Udalaren erregistroan idatzi bat aurkeztuta, email bat bidaliz [sugerencias@lasarte-oria.eus](mailto:sugerencias@lasarte-oria.eus) helbidera edota webaren bidez: [albisteak.lasarte-oria.eus/euskara/galdeketa](http://albisteak.lasarte-oria.eus/euskara/galdeketa).

**Amaia Andres GAF Gipuzkoako Atletismo Federazioko lehendakaria**

# “Ia hiru hilabeteotan hango eta hemengo suak itzaltzen aritu gara”

*Irailean hartu zuen Amaia Andresek (Donostia, 1966) GAFeko lehendakari izatearen ardura. “Zirkulua ixtea” dela dio, “atletismoak, eta, bereziki, gipuzkoarrak” eman dion guztia itzultzeko modua. Kargua hartzea eskaini ziotenean, hasieran ezezkoa eman zuen; gero, ordea, buelta gehiago eman zizkion proposamenari, eta bere buruari galdetu zion: “Zergatik ez?”. Orain, ia hiru hilabete pasa direnean, erronkarekin “gero eta ilusionatuago” dagoela dio. Dena ez da GAF, ordea: LOKE Lasarte-Oria Kirol Elkarteko prestatzaile izaten jarraitzen du, entrenatzaile pertsonala da herriko Saito gimnasioan, eta mintzapraktika taldearekin ere elkartzen da.*

Iñigo GONZALEZ

**A**tletismoaren fase eta etapa guztiak ezagutu ditu Amaia Andresek bere ibilbidean zehar: gazte-txoa zenetik atleta Txindoki klubean, nazioartekoa eta olinpikoa gero, Gipuzkoako Federazioan eskolartekoen koordinatzaile, LOKE klubeko entrenatzaile eta lehendakari...eta, irailetik, GAF Gipuzkoako Atletismo Federazioko presidente.

Herrira etorri izana mugarriztat du Amaiak. “Lasarte-Oriak oinarriko atletismoa, eskolartekoa, ongi ezagutzeko aukera eman dit: zein egoeratan egiten duten lan begiraleek, guraso elkarteek, Ttakunek... hankak lurrean mantentzen lagundu dit. Herrira etortzeko aukerarik izan ez banu, agian orain ez nuen jarraituko atletismoaren munduari lotuta”.

Horiek, ordea, hipotesiak dira. Errealitatea, bestelakoa: GAFeko lehendakaria da, LOKEko prestatzailea eta entrenatzaile pertsonala. Gai guzti horiei buruz hitz egin du Amaiak TXINTXARRIREKIN.

**Ia hiru hilabete pasa dira GAFeko lehendakari zarenetik. Zer balorazio egiten duzu orain artekoaz?**

Gai asko aurkitu ditugu mahai gainean, lan asko egiteko. Eta hori, federazioaren insolbertzia ekonomiko erabatekoaren egoera bizkar gainean eramanda; 138.000 euro zor ditu federazioak uneotan.

Bestalde, GAFren mendeurreneko ekintzak kudeatu behar izan ditugu. Ez da izan arazo bat, inondik ere, baina

lan estra bat bai. Esan ohi den bezala, hango eta hemengo suak itzaltzen aritu gara.

**Nolatan aurkeztu zinen presidente izatera?**

Kargua irailen hartu nuen, baina lehenagotik dator kontua. Egoera kaxkarra zela ikusi genuen, klubek ez genuela kobratzen, arazoak zeudela eskolartekoekin... Hori aintzat hartuta, klub gipuzkoar ia guztiak mahaiaren bueltan eseri ginen, irtenbideren bat topatzen saiatzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, ordea, esan zuen ez zuela gestorarik nahi, hezur eta haragizko pertsona batek izan behar zuela federazioaren buru. Niri proposatu zidaten lehendakaritza hartzea: ezetz esan nuen hasieran, baina gero, buruari buelta batzuk eman ostean, pentsatu nuen nire barrurako: ‘Zergatik ez?’. Egia esan, gero eta ilusionatuago nago erronkarekin.

**Erronkez eta egin beharrekoek hitz egiten hasita, arreta deitu dit lehenengo galderan aipatutako guztietan pluralen hitz egin duzula. Zu zara federazioaren burua, baina ez zaude bakarrik.**

Hasieratik eduki dut argi hau dena aurrera ateratzeko lantaldea dela gakoa. Kideen artean emakume gehiago egotea gustatuko litzaidake, eta saiatu nintzen, baina ez zen posible izan azkenean. Profil desberdinetako jendea aukeratu dit taldea osatzeko: atletismoa ezagutzen duena, noski, baina baita beste alor batzuen inguruan aholku eman dezateke-



Amaia Andres “gero eta ilusionatuago” dago GAFeko lehendakari izatearen erronkarekin.

nak ere: marketinga, horrelako erakunde bat nola kudeatu, diruzaintza, eta abar.

Izan ere, argi esango dut, enpresa bat balitz bezala eraman nahi dut federazioa. Argi dago zerbitzu bat eskaintzen diogula Gipuzkoari, baina, era berean, gai izan behar dugu gastuak murriztu eta diru-sarrerak igotzeko, eta baliabide gehiago sortzeko.

**Gastuak jaitsi, sarrerak handitu... Ekonomiari lotutako kontzeptuak dira. Alor hori premiazkotzat daukazue zuen agendan?**

Hilabeteotan mendeurreneko ekintzak aurrera ateratzea izan da gure lehentasuna, asko daukagulako jokoan. Hemen lanean ari garenek ez dugu horrelako urtemugarik gehiago biziko. Federazioak 100 urte betetzea atletismoaren meritu handi bat da.

Horrez gain, oraindik lan ugari daukagu egiteke. Lantaldean bost puntuko ildo estrategiko bat diseinatu dugu, epe luzera begira, legegaldia irauten dituen lau urtetara begira, hain justu. Lehenengo puntua, halabeharrez, egoera finantzarioari buruzkoa da: gai izan behar dugu gure burua autofinantzatzeko eta administrazio publikoaren laguntzen menpeko ez izateko.

**Zeintzuk dira jorratu beharreko gainontzeko puntuak?**

Atletismoa garai berrietara egokitu behar dugu. Uste dut zaharkitua geratu dela, beste kirol diziplina batzuk aurreratua daudela. Garai batean hamar kilometro egitea sekulakoa zen; gaur egun, maratoi

*“Atletismoa zaharkitua geratu dela uste dut. Garai berrietara egokitu behar dugu, beste kirol diziplina batzuk aurreratua daude. Lehen, hamar kilometro egitea sekulakoa zen; orain, maratoi bat egiten ez baduzu, aldapan gora eta patinekin...”*

bat egiten ez baduzu, aldapan gora eta patinekin... Formularen bat topatu behar dugu atletismoa berritzeko.

Alor gehiago ere jorratu nahi ditugu: kanpo-harremanak, kudeaketa... Lasterketa popularrak ere erregulatu egin behar ditugu; kalean pertsona askok egiten dute korrika, eta pistan, ia inork ez. Atleta popular horiei eskaintza erakargarriak egin behar dizkie GAFek, haiek hala nahi badute, federa daitezten.

**Eta kirol arloari dagokionean, zer?**

Gustatuko litzaidake bi atleta olinpiko gipuzkoar beharrean bost egotea, adibidez, edo lizentzia federatiboaren kopurua bikoiztea, klub gehiagok aukera edukitzea lehenengo mailara igotzeko... Eta, horrez gain, klubuen eta entrenatzaileen egoera zein den ere jakin nahi dugu. Lantaldeko kideei aipatu diet Gipuzkoako atletismoaren egoeraren azterketa orokor bat egin behar dugula, epe luzera begira. Momentuz, datu-bateria bat osatu dugu.

Urrats horiek denak eman ahal izateko, ordea, denbora behar dugu. Irailetik orain

arte, hango eta hemengo suak itzaltzen ibili gara. Urtarrilera arte horrela izango da. Hilabete hori iristean uste dugu erritmoa lasaitu egingo dela apur bat; mahaiaren bueltan eseriko gara, eta elkarri esango diogu: ‘Zer nolako federazioa nahi dugu?’.

**Galdera horren erantzuna nolakoa izatea gustatuko litzazuke lau urte barru?**

Federazioa iritsi berritan argazki bat atera dugu, egoera ekonomikoari buruz batez ere, auditoria eta guzti. Ikusiko dugu lau urte barruko irudi hori zenbat aldatzen den. Batzarrari kontuak aurkeztu dizkiogu, esan diegu nondik gatozen. Lehen esan bezala, 138.000 euro zor ditu GAFek. Zorra murriztea, kirol arloko helburuak betetzea, lasterketa popularrak antolatzen dituzten taldeekin harremanak berreskuratzea eta gauza berriak antolatzea elkarrekin... Erronka asko ditugu. Lortuko ditugu ala ez, baina saiatu ez garenen sentsaziorik ez zait geratuko, hori ziur.

Gardenak izan nahi dugu, jendeari informazioa eman eta ikusarazi GAFren zerbi-

*“Enpresa bat balitz bezala eraman nahi dut Federazioa, gai izan behar dugu gastuak murriztu eta diru-sarrerak areagotzeko, eta baliabide propioak sortzeko; uneotan, 138.000 euro zor ditu GAFek”*

## “Lasarte-Oria mugarrria izan da nire ibilbidean, aukera eman dit oinarriko atletismoa ezagutzeko. Herrira etorri izan ez banintz, beharbada ez nuen jarraituko atletismoaren munduari lotuta egoten”

tzura gauden pertsonak garelara, langileak garelara. Jendeak ikusi dezala euren interesen alde lan egiten duten pertsonak daudela federazioan, ez dela urruneko erakunde bat.

Bestalde, argi dut beharbada mundu guztiari ez zaiola gustatuko federazioa kudeatzeko nire modua, baina hori lanaren parte da eta onartuta daukat. Ez daukat interes ekonomiko, politiko edo profesionalik, legealdia bukatzean agur esan eta banoa. Ez naiz ‘ate birakari’ horietako batean sartuko, nire bizitza antolatua daukat honezkeroko, eskolarteko atletekin, entrenatzaile pertsonala ere banaiz...

### la bizitza osoa daramazu atletismoaren munduan murgilduta. Zirkulua ixten al duzu erronka honekin?

Bai, hala da. Nik uste atletismoaren egoera eta rol guztiak ezagutu ditudala: eskolartekoetan hasi nintzen, Beasainen aurrena eta Ordizian gero, Txindoki klubean; nazioartekoa eta atleta olinpikoa [Bartzelona 1992n, 800 metroko distantzian], koordinatzaile GAFen, entrenatzaile LOKEn eta presidente ere bai, eta federazioko lehendakari orain.

Atletismoak, eta, gipuzkoarrak bereziki, asko eman dit. Bartzelonako Olinpiar Jokoean parte hartu nuenean, klub asko zeuden prest ordaindu eta ni patrozinatzenko, baina nik ezetz esan nuen, txikitako klubarekin, Ordiziako Txindokirekin hartu nahi nuela parte, eta hala egin nuen. Hori lorpen handia izan zen niretzat.

Orain, lehendakaritza hartuz, atletismo gipuzkoarrari itzuli egin nahi diot hori dena.

**Lasarte-Oriara etorri izana urrats garrantzitsutzat duzu**

### zure ibilbidean.

GAFeko koordinatzaile lanak utzi eta herrira etorri izana mugarrria izan da nire ibilbidean, beti edukiko ditut esker hitzak. Lasarte-Oriara etortzeko aukerarik izan ez banu, agian gaur egun ez nuke jarraituko atletismoaren munduari lotuta egoten jarraituko; utzi egingo nuen akaso.

Herrian oinarriko atletismoa ezagutu dut: eskolartekoa. Begiraleek, guraso elkarteek edota Tkakunek zein egoeratan egiten duten lan, nola koordinatu hori guztia. Hankak lurrean mantentzen lagundu dit.

### LOKEko atletismo alorrean prestatzaile lanetan urte ugari daramatzazu. Klubaren presidente ere izan zara.

Azken hiru urteetan izan naiz LOKEko lehendakari, baina kargua utzi behar izan dut ez zelako bateragarria GAFeko presidente izatearekin. Maite Ruedak, gimnasia erritmikoko arduradunak, hartu du testigua. Judo, tenis, gimnasia erritmiko eta atletismo alorrek ditugu. Ez dugu arazo handirik eduki, barne zein kanpo mailan.

Atletismo alorrean entrenatzaile moduan jarraitzen dut, oso gustura gainera.

### Zein egoeratan dago atletismo alorra?

Inoiz baino hobeto gaude: urtero aurrerapausoak ematen ari gara. Gaztetxo gero eta gehiago animatzen dira atletismoa probatzera; neskak mutiak baino gehiago. Ia 40 ume ditugu benjaminetan, 30 inguru alebinetan, infantiletan ere ugari...eta, batez ere, azpimarratuko nituzke kadete mailan izena eman duten 14-15 urteko neskak.

Federatuei dagokienean, Eneritz Bustok jarraitzen du



Amaia Andres, LOKEko eskolarteko atleta talde batekin. Oso gustura egiten ditu prestatzaile lanak Amaiak.

entrenatzen, Ane Galardi medikuntza ikasten hasi da baina LOKEn jarraitzen du, Gaizka Ormazabal eta Jon Altunaren figurak ezinbestekoak dira. Oscar Goikoetxea senarra eta biok ezin izaten dugu egunero joan, haiei deitu eta dinamika eramateaz arduratzen dira...lasaitasun handia ematen du horrek. Eredu dira, egunen batean haiek hartu beharko dute lekukoa.

Oso harro nago taldean sortu dugun sentimenduz eta giroaz: denok laguntzen diogu elkarri, hemen denak dira garrantzitsuak. Eskolarteko mailako gurasoak ere beti prest daude laguntzeko, whatsapp talde bat ere osatu dugu, dena euskaraz... Giro oso ona daukagu gure artean.

### Zeintzuk dira atletismo alorraren denboraldiko xedeak?

Eskolartekoen artean sustatu nahi duguna da atletismoko proba desberdinak ezagutzea eta probatzea, kompetizio helburu markaturik gabe.

Federatuen artean, taldetxo batek definituta ditu probak eta egutegia, baten bat Espainiako txapelketarako sailkatu daitekeela uste dugu. Naroa Furundarena, Nerea Loiarte, Xalba Otxandorena, Oihana Igarritz edota Idoia Olasagasti daude talde horretan.

Eneritz Busto ballistak beste helburu batzuk ditu. 2017ko uztailen juniorren Europako

txapelketa jokatuko da Italian. Sailkatuko balitz, taldekideok zin egin diogu berarekin batera joango garela pisu batera, furgoneta hartuta.

### Berririk ba al duzue Udalak Atsobakarren egin gura duen atletismo pistaren egitasmoari buruz?

Ez, azkenaldian ez. Jarri ziren gurekin harremanetan, galdeztzeko ea iritzia eman nahi genuen obra horren inguruan. Guk eman nahiko genuke aholku, aspektu teknikoaren inguruan batez ere, pista nola egin, zein faktore hartu kontutan... Horrez gain, badakigu lursailen zati bat Usurbilgo Udalarrena dela, eta gaur artean ez direla ados jarri.

### Herriko Saito gimnasioan ere egiten duzu lan, entrenatzaile pertsonal gisara.

Pilates saioak ematen ditut, eta abdominal hipopresiboak ere bai. Entrenamendu personalizatuak diseinatzen ditut baita ere, oposizioak prestatzen ari den jendearentzat, ertzain izateko adibidez.

Oso polita da ikustea nola zuk prestatzen dituzun pertsona horiek apurka-apurka jarritako helburuak lortzen dituen: bukaerako emaitzak baino, horraino iristeko egiten duten bidea. Pilates saioei dagokienean, kirol munduarekin apenas harremanik duen jendea da, eta horiek

ere saioz saio hobetzen doazela ikustea pozgarria da oso.

### Atleta zinen garaiko ezagutzak eta esperientziak partekatzen dituzu haiekin?

Bai, batez ere atleta nintzeanean eman zizkidaten aholku eta jarraibide on guztiak transmititu nahi izaten ditut. Txarrak, ordea, albo batera uzten ditut, eta errepikatzen ez saiatu.

### GAFeko lehendakari, prestatzaile LOKEn, entrenatzaile pertsonal, familia... Nola uztartzen duzu dena?

Semeak honezkeroko koskortuta daukat, eta autonomo samarrek dira. Uste dut iritsi dela nire momentua, beste erronka batzuei ekiteko. Dena den, arau moduko batzuk jarri ditugu etxean: adibidez, iristen naizenean sakelako telefonoak deskonektatzearena, edo entrenamenduei buruz senarra eta biok ez hitz egitea, ohitura izaten baitugu sarritan. Hori bai, semeak oheratu eta gero, ‘krisi kabineteak’ egiten ditugu, eguneko entrenamendu eta antzeko gaiei buruz. Egia esan, herritik Donostiara arteko distantzia ere ez da handia, eta horrek erraztu egiten ditu gauzak.

Eta ez nuke aipatu gabe utzi nahi nire mintzapraktika taldea. Oso gustura nago, eta prentsaurrekoetan hitzen bat euskaraz esaten ere hasi naiz!

zerbitzu mistoak

# MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Ordu-tegi malgua daukagu  
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria  
Tel. 943 37 08 45

- Manikura eta pedikura
- Makillajea
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektriko
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Fotodepilazioa argi pulsatuarekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Ultramorerik gabeko beltzarantzea
- Solariuma

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria



## ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Odolkiak</li> <li>✓ Solomo antzutua</li> <li>✓ Etxeko txorizoa</li> <li>✓ Basurde burua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Txistorra</li> <li>✓ Solomoa baratxuritan</li> <li>✓ Tripakiak, saltxitxak...</li> <li>✓ Baserri pateak</li> </ul>
---	---

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51

## FUTBOLA.

## Ostadar SKT garaile Martutene KEaren aurka

Ohorezko Erregional mailako mutilek garaipena erdietsi zuten igandean, etxean

Ligako hamalagarren jardunaldia jokatu zuten Ohorezko erregional mailako Ostadar SKTk eta Martutene KEak igandean, Mitxelingo Kirol gunean. Etxean jokatutako partida 'txarrena' izan bazen ere, bost gol sartuta, garaipen garrantzitsua lortuta amaitu zuten herriko taldeak.

## MADDI NORIEGA

Garaipena erdietsita, pozik amaitu zuten Ohorezko mailako Ostadar SKT erregional mailako mutilek. Igande eguerdian jokatu zuten norgehiagoka Martutene KEaren aurka, Mitxelingo futbol zelaian.

Jokoari hasiera eman eta lehen minutuan jarri ziren etxeok markagailuan aurretik; Martutene KEaren defentsak izandako huts egite baten ondorioz, lehen gola sartu zuen Julen Campo etxe jokalaria.

Urdin-beltzak aurretik jarri baziren ere, ez zuten egoera hori aprobetxatzen jakin, eta jokoaren lehen zati osoan, Martutene KEa izan zen nagusi. Hauek, gol-aukera bat baino gehiago izan zituzten partidaren lehen zatian markagailuan berdinketa eskuratzeko, baina ez zuten lortzerik izan. Gauzak horrela, lehen zatia amaitzeko minutu bakarra falta zela, bigarren gol aukera izan zuten etxeok,

baina ez zuten atezaina gainditzea lortu, eta bat eta hutsuko aldearekin joan ziren atsedenaldira.

## Bigarren zatian hobeto

Bigarren zatia antzeko hasi bazen ere, 60. minutuan Alex Rodriguezek Ostadar SKTren bigarren gola sartu zuen, eta indarrak bildu zituen etxeok taldeak. Minutu gutxitara Martuteneren lehen gola iritsi zen, baina denbora tarte laburrean, Gorra Brit Ostadar SKTko jokalaria hirugarrena sartu zuen.

Gauzak horrela, talde aurkariari zail jarri zitzaion norgehiagoka, eta nahiko erraza izan zuten aldiz, etxeok jokalariek.

Partidua amaitu baino lehen, Arkaitz Sanchez eta Iban Ruiz jokalariek urdin-beltzek gol bana sartu eta guztira, bost gol eginda, 5 eta 1eko aldearekin bukatu zen jokia Mitxelingo Kirol gunean.

Partida ona egin ez bazuten ere, garaipen garrantzitsua eskuratzeko lortu zuten etxeok mutilek.



Ohorezko erregionalak 5-1 irabazi zuen Martutene KEaren aurka, igandean, etxean.

## Mailari eustea helburu

Ligaren hasieran sailkapenean gora egiteko zailtasunak izan zituen Ohorezko erregional taldeak, baina azken 18 puntuetatik 12 lortuta, azken postuetatik urruntzen ari dira etxeok eta mailari eustea da taldearen helburu nagusia.

## Hurrengo Hemaniren aurka

Aurkari gogorra izango dute datorren norgehiagokan, Ohorezko erregionalek. Hernani CDren aurka jokatuko dute datorren igandean.



Jokoa kanpoko taldea izan zen nagusi, baina etxeok izan ziren garaile.

## LASTERKETAK.

## San Silvestrerako izen-ematea zabalik

Iazko esperientzia arrakastatsuak hauspotuta, San Silvestre lasterketa herrikoiaren antolatzaileak bigarren edizioa ari dira prestatzen. Hilaren 31n jokatuko da proba, arratsaldeko lauetan. Korrika, ipar martxako makilekin edota patinekin egin ahalko da. Sei kilometro izango ditu luze (ipar martxa modalitatekoak, berriz, 4,3).

Lasterketan parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete honezkeroko, internet bidez, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) web orrialdean. Inskripzioak bost euro balio ditu, eta abenduaren 28ra artekoa da apuntatzeko epea. Hamasei urte baino gehiago eduki beharko dituzte korrikalariek.

Egun horretarako apuntatu ez direnek badauzkate aukera gehiago ere. Hilaren 29an eta 30ean Manuel Lekuona kultur



Aurten ere herritar asko animatuko dira San Silvestre lasterketa egitera.

etxean ere izena eman ahalko dute herritarrek, zazpi euroren truke, hori bai. Eta, azken aukera gisara, lasterketaren egunean bertan, goizean zehar, Okendo plazan egin dezakete inskripzioa, hamar euro ordainduta.

Iaz bezala, herriko establezimendu eta komer-

tzioekin elkarlanean ari dira antolatzaileak, izena ematen duten lasterkarien artean sari ugari banatu ahal izateko.

Antolatzaileek herritarrek animatzen dituzte lasterketan mozorrotuta parte hartzeko. Gainera, mozorro onenari eta ongien mozorrotutako koadrilari sariak emango zaizkie.

## OSTADAR.

## Gaur hasiko da Ostadarren bazkide kanpaina

Ostadar SKTk urteroko bazkide kanpaina jarriko du martxan gaur. Abenduaren 23ra arte luzatuko da: "Zuen laguntza bihotez eskertu nahi dizuegu eta gurekin jarraitzea animatzen zaituztegu, kirol egitasmo hau gauzatzeko ezinbestekoa baita zuen diru-laguntza", adierazi du kirol elkarteak. Bazkide egin nahi duten herritarrek 943 36 04 33 telefonora deituta edo [ostadar@ostadarskt.eus](mailto:ostadar@ostadarskt.eus) helbide elektronikora idatzita eskuratu ahalko dute kanpainari buruzko informazio gehiago.

Bestalde, iazko denboraldian zehar Ostadar SKTk eskainitako alor guztietan kirola egin zuten herritarren datuak eman ditu elkarteak. "8 eta 75 urte bitarteko 980 pertsonak egin zuten kirola Ostadarren bitartez, alor hauetan: saskibaloia, futbola, areto-futbola, tenisa, mendia, txirrindularitza, ipar martxa, atletismoa eta boloak eta toka".



Irudian, Ostadar SKTko alor desberdinetako arduradunak. OSTADAR SKT

## Agenda

Gaurtik ostiralera, 19:00etan, Manuel Lekuona Kultur etxean



### Gabonetarako gomendioak

Aterpeak eta Udalak 'Gabonak zurekin prestatzen ditugu' jardunaldiak antolatu dituzte:

Astelehena - Aritza mertzeria eta Yolanda taberna  
 Asteartea - Ormazabal loradenda eta Arkupe taberna  
 Asteazkena - Maiane lurrindenda eta Lasarte taberna  
 Osteguna - Kattagorri jolasdenda eta Goiegi jatetxea  
 Ostirala - Alba moda eta Buenetxea taberna

### II. Kalera Fest

LASARTE-ORIA

Larunbata 17, egun osoa

Esna Hadi, hainbat eragile eta ostalariek antolatuta, haurrentzako jokoak, antzerkiak eta kontzertuak izango dira.



### Andoain

#### Antzerkia

BASTERO KULTURGUNEA

Ostirala 16, 22:00etan

Sirian dauden errefuxiatu irakiarrei egindako elkarrizketetan oinarritutako Douglas Rintoulen testua aurkezten du 'Elegy' lanak. Sarrera, 12 euro.

### Lasarte-Oria

#### Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 16, 22:00etan

Okendo Zinema taldearen zineforumean 'Snowden' filma aztertuko da. Jatorrizko bertsoia azpitu-luekin. Sarrera, 5,50 euro.

Igandea 18, 22:00etan

Haurren zinema saioan, Disneyren animaziozko film berria 'Vaiana' izango da ikusgai. Sarrera, 3,80 euro.

Igandea 18, 19:30ean

Helduen zinema saioan, 'La Llegada' filma izango da ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.

### Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteazkena, 18:00etan

KontuKantoiko kideek 6-8 urteko haurrei zuzendutako ipuin saioa eskainiko dute.



### Musika

AMA BRIGITARREN KOMENTUAN

Ostirala 16, 19:30ean

Francisco Escudero kontserbatorioko

abesbatza eta gitarren emanaldia, Danok Kide elkarteak antolatutako Musika Topaketan barruan.

Igandea 18, 12:30ean

Alboka Abesbatzak Gabonetako kontzertua eskainiko du.

### Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 17, egun osoa

Lasarte-Oria Dantzan ekimenaren barruan, Cielo Raso konpainiak 'Tormenta' lana eskainiko du. Sarrera, 5,50 euro.



### Usurbil

#### Hitzaldia

POTXOENEA

Asteartea, 19:00etan

Urko Aiertza, abokatu eta senatari ohiak 'Presoen kaleratzea, bake prozesu ezberdinetan (Hego Afrika, Irlanda, Kolonia)' hitzaldia eskainiko du. Kalera Kalera! ekimenak antolatua.

Osteguna, 18:00etan

Miren Illarreta eta Maritxu Paulus Basurko abokatuek 'Estatu Frantseseko presoen Erradiografia' hitzaldia eskainiko dute. Kalera Kalera! ekimenak antolatua.

## Herritarren txokoa

### 20. Korrikako materiala

Muntteri-AEK euskaltegiak 20. Korrikako materiala salgai du Geltoki kaleko egoitzan.

Emakume, gizon, zein haurrentzako kirol-jantziak, kamisetak, lepokoak edo txanoak eta agenda ere eskuragarri daude.

Interesa duenak hurbildu dadila Muntteri-AEKra.

### Aterpeko loteria

Aterpea Merkatarien elkarteak jakinarazten du Gabonetako loteria salgai duela. Interesa dutenek elkarteko establezimenduetan eskuratu dezakete.

### Eskutitza

#### Santiren egoera salatzen dugu

Jasanezina da Santi Arrozpide Sarasolaren egoera (Lasarte 1948). Espetxean daukate 1987ko irailaren 30etik, 2000. urteko abenduaren 21etik estatu espainolean. Espainia zein Frantziako hainbat espetxetatik pasa ondoren, orain Topasen (Salamanca) daukate. Beti herritik urruti.

Europako legediaren arabera, epaitegiekin zituen "zorrak" kitatuta dauzka 2013. urtetik. Ez diote onartzen bere zigorra bete duenik ordea, Espainiako Gobernu eta Legebiltzarrak bultzatutako lege aldaketa baten ondorioz, Espainiako Auzitegi Gorenak espetxean mantentzeko agindua onartu baitu, estatu frantsesean betetako urteak kontuan hartu gabe. Guztira 29 urte baino gehiago darama azken espetxealdian, eta lehenago ere, Franco diktadorearen garaian, preso egona da. Zeinen gutxi aldatu diren gauza batzuk,

diktadura garaitik demokrazia espainol berezi honetara.

Ez dago eskubiderik Santi honela tratatzeko. Egoera bidegabe hau salatu eta Lasarte-Oriako herriari, Euskal Herri osoari, alderdi politikoei, sindikatuei eta abarrei beren ahaleginak biderka ditzatela eskatu nahi diegu, egoera honi buelta eman eta Santi gure artera ekartzeko, gure herriaren eraikuntzan bere ekarpena egin dezan.

Amai dezagun mendeku politika honekin, jar ditzagun oinarri eta bitarteko sendoak herritar guztiek bizitza duin bat lor dezaten, lor dezagun. Bizikidetzatza landu beharra daukagu, elkarrekin bizi, denok eskubide berdinen jabe. Horretarako, ezinbestekoa da Santi gure artean izatea.

Ez dugu etsiko Santi eta besteak etxera ekarri arte, eta bitartean eurak ikustera joaten jarraituko dugu, nahiz eta kristal zikin baten atzetik izan. Animo guztioi, zenbat

eta gehiago izan, zenbat eta lan gehiago egin, sufrikario hau orduan eta laburragoa izango baita!

Tomas Arrizabalaga Zubizarreta,  
 laguna  
 Peio Lizarraga Borda,  
 laguna  
 M<sup>a</sup> Jose Eizmendi Tapia,  
 Sareko kidea

**Zuen oharrak jarri,  
 kegak adierazi edo  
 eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48  
 txintxarri@txintxarri.eus

**Ekonomia  
Suspertzeko Plana**

**200M€  
2015 > 2019**

*Gure lurraldeko **ekonomia,  
enplegua eta ongizatea** indartzeko.*

**ORAIN EKONOMIA**

**Ekonomia Suspertzeko Plana**

200 milioiko inbertsioa gure enpresetan 2019ra arte, gure lurraldeko ekonomia, enplegua eta ongizatea indartzeko.

**200M€  
2015 > 2019**

<b>Industria</b>
<b>Lehen Sektorea</b>
<b>Gizarteratzea</b>
<b>Kultura eta Turismoa</b>